

Goibekokale

ELGETAKO ALDIZKARIA 1995eko ekaina

FERIXA NAGUSIA



F. IRIBAR
SALBADOR 9-1ª EZK.

Maderas Gallastegui, s.a.

MENDI UZTIKETA ETA SERRA MEKANIKOA
Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (Bizkaia) Tel. eta faxa: 6583061.

"Mala Letxia"ri buruz

Jabier Aranzetaren artikulua leiduntakuan inoiz entzun doten gauzia etorri jatan burura, batek daki zergaitik otu jatan.

Jakintsu eta ergelaren arteko diferentzia hau da:

Jakintsua: Ez dau dakiena esaten.

Ergela: Ez daki zer esaten daben.

J.A. ren saltsan sartzeko intentziñorik ez dodanez, ondiokan ez behintzat, nik pentsatzen dotena ez dot esango. Nire duda hau da: Nun jarriko dau J.A.k bere burua?

Pentsau pentsau eta ez kontestau.

Mesedez.

Margaretha Zelle

Elgetako abadiak ez dauka hitzik

Gizalegearen kontrako ekintzak gaitzestekoak dira; Are gehiago herriko eliztarren aurrean, abade batek, bere ustezko autoritate moralaz baliatuz hartutako konpromezuak inolako esplikaziorik gabe bere kabuz desegiten dituenan.

Beherbada bere kontzientziak ez dio konturik eskatuko, baina, Elgetako Herriak pertsona honen jokaera ezagutu behar du, abade hone n giza kalitate urriaren berri izateko: Abade honek *garbi denez Esteban-ez ari gara) iazko azaroan konpromezua hartu zuen aurtengo uztailaren 15ean bikote bat Jasokundeko Amabirjinaren Elizan ezkontzeko. Gauzak horrela holakoetan ohi diren prestakuntza guztiak hasi ziren: gomiteak, erreserbak, etab. Kontua da ekainaren hasieran bikote honek jakin zuela, herriko beste pertsona batek esanda, Eliza obretan egongo dela ekainaren 19tik aurrera. Hurrengo egunean bikotea abadearekin arremantant jarrita, honek esaten zien halaxe zela, berak ezertxo ere esan ez arren, eta kanposantuko ermita txiki bateanez konduko zituela. Guzti hau bere aurpegian kolorerik azaldu gabe! Aurretiaz zergaitik ez dien egoera esplikatu galdetuta ere, abadeak ez zien esplikaziorik eman nahi izan. Bikote honek presaka eta problema haundiekin aldatu behar izan ditu ezkontzarako prestatutako guztiak.

Itziar Urizar Tejera

MEREZI DU

Oporrak badatoz eta nora joan edo zer egin pentsatzeko garaia da. Zeregin horretan badago aukera bat *Goibekokale*ren lotura duena: **Irakurketa**.

Hau, garai aproposa da denontzat irakurtzeko ohitura jorratzen hasteko edo eta mantentzeko eta indartzeko.

Goibekokaleren helburuetariko bat ohitura hori bultzatzea da, ohitura aberasgarria dudarik gabe. Telebistak gazte-gaztetatik piskanaka-piskanaka murriztu digun imajinazioa pisteko balio du. Irakurtzean, bakoitzak bere irudi eta egoerak sortzen ditu, ez datozkio kanpotik ezarriak.

Irakurtzeak ikasteko ere balio du. Uste dut inoiz ez dela nahikoa ikasten denori falta zaigu zerbait ikasteko. Liburuetan ikasi daitezkeen gauzak, eskolan ikasi daitezkeenak baino interesgarriagoak izan daitezke batzutan.


Irakurtzeak mundu honetatik beste mundu batzuetara pasatzeko balio du imajinarioarekin eta batzutan mundu honetatik ihes egiteko ere bai. Gure konpoko iturrari horrenbeste garrantzi ematen diogun garai hauetan, gure barrukaldea ere pixkabat landu beharko genuke, adibidez irakurketaren bidez gehiago pentsatu eta erreflexionatzeko.

Beraz, Goibekokale irakurtzea bukatzen duzunean, hartu beste aldizkari bat edo liburu bat eta egin aproba edo jarraitu irakurtzeko zenuen ohiturarekin.

Beste gauza batzuk bezala hasieran ez da izango erreza, baina, merezi izango du, euskeraz bizi eta pentsatu ahal izateko beharrezkoa baita euskeraz irakurtzea, beste gauza batzuen artean.

Bittor Gallastegi

Argitarapen honen edizioko laguntzailea



kutxa fundazioa

ZURE ESKUTITZEN ZAIN GAUDE!

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Bertan kezka, iritzi, galdera, etab. adierazteko aukera duzue. Eskutitzak, izena, bi abizen, telefono zenbakia eta NAN zenbakia izan beharko ditu derrigorrez. Gero argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko balu, inicialak edo gaitzizena agertuko dira. Eskutitzen luzera ez da inoiz orrialde erdi makinaz, 15-18 lerro baino luzeagoa izango. Bidali sobrea *Goibekokale* ipinita.

GOIBEKOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690. Laguntza berezia: Ozkarbi elkarte. Koordinatzaileak: Iñaki Legi. Erredakzio kontseilua: Iban Aranzabal, Gaizka Bolinaga, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi eta Bittor Gallastegi. Erredakzio burua: Iñaki Erostarbe, Gorka Arizmendiarieta, Juan Ramon Irazabal. Maketatzailea: Bittor Gallastegi. Euskeraren arduraduna: Iban Aranzabal. Argazkien erreibelazioa: Txuri-Beltz argazkizale taldea. Komikia: Igor Arizmendiarieta. Horroskopia: Aitor Ubera. Aleko argazkizaleak: Joseba Elkoro, Juan Ramon Irazabal. Administrazioa: Esti Retolaza, Susana eta Olaia Jimenez. Banaketa: 1000 ale. Inprimategia: GERTU koop. (Zubillaga Oñati). Copyright-a: EGA Lege-Gordailua: SS-475/95. ISSN: 1135-3538.

Goibekokale ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



S. Antoniori erregutuz

Zorionez, ohitura zahar batzuek ez dira galdu, eta horietako bat urkiolan ospatzen den San Antonio eguna da.

Ekainaren 23a hurbiltzen denean, ganadu feria, meza eta antzerako aitzakiekin, egunpasarako prestatzen gara erroskilla txorta bat etxera ekarriz botatako parranda justifikatzeko.

Baina egun honek sortarazten duen ahalegin xelebreena emazte-senargaia aurkitzea da: batzuek errezuen bidez, beste batzuek harriari buelta batzuk emanaz, eta gehienak trago batzuk jo ondorenkasualitate edo mirari baten bidez. Hainbat neskamutil asmo berdiñarekin joanez gero, ez dot uste aipatutako hori betekizun saila denik...

Ezkongabeen gorabeherak gogoratuz, Elgetako "karteruaren" kalenturak eta desbenturak etorri jataz burura: itxura denez, Elgetan gizon alargun eta mutilzahar dexente daudela nabaritzen da. Gure karterua "korrekaminos" gisan hor aritzen da Elgetako emakumeen izkutalekuak topatzen, txakurren antzera usainarekin arrastoa jarraituz. Sartu etxeetako atarrietan eta batzuetan buzoirik ez, beste batzuetan buzoiak izenik gabe, eta gehienetan (gauza xelebrea) etxek o gizon edo maiorazkoaren izena bakarrik. Egoera hontatik bi konklusio atera daitezke:


- Alargun eta eskongabe ugari dagoz Elgetan.

- Pixkat burugorrrak gara.

Hau dela eta, saiatu gaitzen denon artean mutil zintzo honen lana erreztan, geure onerako izango da eta.

Ni ez naiz egokiena izango arazo hau azaltzeko, baina funtzionari alperrok elkar ez bagara laguntzen, akabo!

J. R. Irazabal



Erreflesio Txiki Bat

Elgetako umeak, uste dut denek, erlijio klaseak hartzen dituzte eskolan, lehenengo mailatik hasita. Horrela esanda, ez dago motiborik susmo txarrik hartzeko.

Baina ikusten duzunean oraindik hamar urte bete baino lehen, ume guztiak, den-denak, erlijio katolikoarekin konprometituta daudela, ez dakit nondik ekarritako arau batzuk betetzen, eta horrela ez denean errudun sentitzeko arriskuarekin, norbere gaintetik dagoen indar ezezagun baten menpe egotea onartuz... praktika hori ikusitakoan, nik behintzat zalantzan jartzen dut bide zuzena ote den.

Erljio katolikoa esplikatu behar dela? Bai horixe! Eta ondo esplikatu gainera; baina berarekin batera, beste aukerak ere bai. Ez dugu ba pentsatuko erlijio katolikoa bakarria denik. Badira, esplikatu behar diren beste erlijio batzuk ere, eta ezagutzarekin konturatuko ginateke badaukagula zer ikasia beraiengandik.

Garrantzi eta sakontasun berarekin azaldu beharko da ateismoa ere, aukera sendo bat delako, bizitza jaungoikorik gabe eramateko.

Zertarako ba bultzatu umeak hain gazte direnean aukera batean definitzera, bakoitzak erabaki beharrean bere aukera horretarako gauza sentitzen denean?

Ez al da komeni Elgetako eliza eta katekesiaren eginkizunak ere aztertzea?

Aukerak, askatasunetik eta inteligentziatik datozenen bakarrik dira sendoak.

Inor mindu barik, erreflesio txiki bat egitea, besterik ez nuen nahi.

Joseba Elkoro

KOMIKIA



ELGETAKO UDALA OSATUTA HURRENGO AGINTALDIRAKO

- Udal Komisionen banaketan desadostasunak bi alderdi nagusietan.-

Ekainaren 17an Elgetako udala osatuta gelditu zen. Bertan onartutakoaren ondorioz, hurrengo lau urtetarako ere EAJko Patxi Basauri Elkoro izango dugu alkate Elgetako udaletxean.

Aukeratutako zinegotziak hauek dira:

EAJtik: Patxi Basauri (alkatea), Antonio Iturrikastillo (alkateorde lehenengoa), M^a Jesus Lete (bigarren alkateordea), Julian Markiegi eta Larraitz Retolaza.

HBtik aldiz, Xabier Ezpeleta eta Olaia Jimenez.

Bestetik uztailaren 5ean, udal komisionen banaketa egin zen. Datorren legealdirako beraz, EAJk 5 komisia izango ditu eta HBk 1. Jarraian komisionen banaketa aurkeztuko dugu:

1. Lanak, ingurugiroa eta urbanismoaz, Patxi Basauri arduratuko da.

2. Osasuna eta Ongizate batzordeaz, aurrekotan bezala, M^a Jesus Lete egingo da arduradun.

3. Ogasuna (Hazienda), Julian Markiegi egingo da kargu.

4. Kirolak eta Gaztedia, Olaia Jimenez. Olaia izango dugu komisia honen arduraduna. Zinagotzi gazteena bera da.

5. Kultura, Euskara eta Hezkuntza, Larraitz Retolaza. Bera ere lehen aldiz dago udaletxean eta zeregin gogorra tokatu zaio, nahiz eta kultura arloan esaterako, dinamizatzaile kulturalaren laguntza izango duen. Orainarte hiru batzordetan zegoena orain batean bilduta izango da.

6. Baserritarrak, Antonio Iturrikastillo.

Komisionen banaketaz gain,

kanpo harremanak Mankomunitate Suradesakin... EAJren esku gelditu dira; alkateordetza biak ere EAJrenak: Antonio Iturrikastillo eta M^a Jesus Lete.

Egoera honen aurrean Elgetako Herri Batasunekoek, beraien desadostasuna adierazi dute. 8 urtez beraien komisia izan diren Euskera eta Jaiak kendu dizkietelako. Horren orde ondorengo lau urtetarako Kirolak eta Gaztedia izango dute eskuartean eta Gobernu Batzorderako toki bat.

HBk adierazitako beste puntu batzuen aurrean, batzordeetan ekonomia eta funtzionamendu aldetik autonomia osoaz jokatzeko aukera eskatu dute eta Presupuestoak urte hasieran onartzea eta errespetatzea.

Ekainaren 17an udala eraturik gelditu zen eta aukeratu berri zen Patxi Basauri alkateak zera adierazi zuen: " Ahaleginduko naiz, elgetarren alde, ahal baldin bada behintzat denen alde lan egiten arlo guztietan". Hitz hauekin eman zitzaion amaiera udaleko eraketa egunari.

Jende gaztea sartu da. Zeregin haundia eta ardurak izango dituzte laister. Denborarekin zereginak landu eta emaitzak ikusteko aukera izango dugu, ez bakarrik Olaia eta Larraitzenak, beste guztienak ere berdin.



Zinegotzi eta alkategaiak, udalaren osaketa egunean, batzar aretoan.

OSTATU
JATEKAK


Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA

Eguneko menua 800 pta.
Karta

Erosle

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190



KONTXI
ARRANDEGIA
Salbador 5 Tel: 768009

FERIXA NAGUSIKO JAIAK

- Ostiraleko kontzertua bertan behera, "Udaletxeari eskatutako baldintzak bete ez zirelako". Hauek izan ziren, taldeko ordezkariaren hitzak. -

Ferixa Nagusiko jaiak ospatu dira urte bat gehiagoz. Inguruko herrietan San Pedroak ospatzen badira ere, ez zen girorik falta Elgetako kaleetan. Euriak eta udako zaparradak ez zuen ito gaueko festa giroa eta ondo pasatzeko gogoia; aterkia eskuan eraman behar bazen ere, jendea gogoz irten zen kalera.

Ostegun arratsaldean hurrek izan zuten ondo pasatzeko aukera; gaztelu puzgarri erraldoia, zezen mekanikoa eta buru haundiak lagun, herriko plazan jardun zuten korrika eta saltoka. Buru haundiekin batek baino gehiagok ixuri zituen negar malkoak. A ze nolako lasaitua aldegin zutenean! Hala ere gainontzeko egunetan ez dute haurrentzako ezer berezirik izan, buru haundiak nekatu egin omen ziren ostegunean.


Gau erdian Kaskajoen etorrera eta txalaparta plazan. Ikurrina ipini zen udaletxean eta ondoan eserita, Kaskajoaren irudia. Erromeriak ederki berotu zituen ondoren, haur eta nagusiak.

Ostiralean ohitura den bezala, Jubilatu eta Gazteen eguna ospatu zen. Goizean jubilatua meza izan zuten San Rokeko ermitan; bertan ipini zitzaizkien, klabe-lina eta mezaren ondoren Ozkarbiko elkartean bazkaria izan zuten. Aparteko eguraldia egin zuen eta giroa ezin hobea.

Arratsaldean zezena. Entzierroa lehenik eta ondoren soka muturra Salbador kalean. Batek baino gehiagok gorriak ikusi zituen. Betiko protagonistak zezenaren aurrean, urtero guztion algarak sortzen dituzten egoerak birsortuz.

Gaueko kontzertua aldiz eta denok dakigun bezala, bertan behera gelditu zen. Tapia eta Leturia Band-en ordezkariak adierazi zigun bezala, "udaletxeari eskatutako baldintzak ez direnez bete, guk ezin dugu eguraldi honekin kontzerturik eman, estalkia gainean beharrezkoa litzateke euripean jotzeko. 6000 w argi indar ipinita geneuzkan eta honek arrisku handia suposatzen du".

Kanpoko eta bertakoen hasierako haserrea pasatu zen. Hurrengo egunean festak aurrera jarraitu zuen. Gaupasaren ondoren, gazte gehienak eta nagusi asko ohean errekerperatzen ziren bitartean, igandeko ferria eguna ospatu zen. Jende ugari bildu bazen ere, aurretotan baino gutxiago hurbildu ziren Elgeta aldera; dena ongi antolatua zegoen, ibilgailuak uzteko eta ateratzeko komeri asko ikusi genituen arren. Elgetar batek irabazi zuen ganadu politenaren saria, Jose Aranzabalek. Aberez gain, egon zen zer ikusi eta zer erosi Elgetako ferixan: tarta eta opilak, ezitia, frutak, barazkiak, makineria...



Humore ona ez da falta behintzat.

Tarte honetan aipatu behar dira eskulane erakusketak gureganaino ekartzen dituztenak ere. Honetan aukera paregabea izaten bait ugu zerbait eskuratzeko.

Igande gauean eta sardinen entierroarekin, datorren urterarte agurtu genituen jaiak. Jendea erretiratu bezain pronto kale garbitzaileen txanda iritxi zen eta bihar-munean herria txukun eta garbi esnatu zen.

Datorren urtea laister helduko da eta berarekin batera "Ferixa Nagusiko Jaiak".

GORROTXATEGI

HARATEGIA

Andra Mari Plazan zure etxetik gertu.

Tel: 76 81 72.

IBAIBARRIAGA

GARRAIOAK

E.Ibaibarriaga

Tel: 768072

Salbador zeharbidea 2

ELGETA

Jaixak

lagun kuadrila honek arrakasta handia lortu zuen bere mozorro honekin. Asto eta gurdi bat ere atera zuten hemen falta badira ere.




e
g
u
e
n
a




egunean ireki zen eta jai guztietan egon da ireki. Giro jator eta animatua izanda.

Jaietako lehen egun hau beti izan da berezia elgetarrentzat. Bertakoak biltzen gara eta honek giro atsegina sortzen du denon artean. Egundon honetan izaten da Kaskajoen ongi etorria eta aurten lehenengoz benetako jaia gauerdiko inguruan: txalaparta, Ikurrinaren igoera eta Kaskajoen figura atera zuten. Ondoren eta Gozategi anaiekin erromeria izan zen plazan. Aipatu behar ere, Txosna ireki zela ostegun arratsaldean; koadrila eta lagun talde desberdinei esker, posible izan zen proiektu honekin aurrera egitea eta hemendik eskerrikeri beroenak denoi, zuen laguntzagatik: tabernan zerbitzatzen egon zaretenei, taberna konpondu, margotu, garbitu eta itxura ona eman diozuenei eta lokala utzi diguzunei. Denoi eskermila.

oineko eta jantzi elenganteekin agertu ziren jubilatuek denak meztara eta ondorengo bazkarira.



b
a
r
r
i
k
u
a



Kontratuko baldintzak bete ez zituenez udaletxeak kontzertua bertan behera gelditu zen. Afarian EGA eta musika taldea akordio batera iritxi ziren kontzertua beste egun baten egiteko.

Ostiralean, jubilatuek eta gazteen eguna izan zen ohi den bezala. Eguraldi aproposa egin zuen egunean zehar. Horrela bada, giro aparta izan zuten bazkal orduan jubilatuek. Arratsalde partean, zezena eta honekin batera xelebrekeria eta barre ugari jende artean; betiko mutil animatuak eta asmakizun berriak, algara eta giro ona sortzeko. Gauean kontzertu bikaina bazegoen ere, ezer gabe gelditu ginen bertakoak eta kanpotik etorritakoak. Hala ere, azken orduko albiste bat emango dizuegu: Gazte Asanbladak eta musika talde hauen artean sortu den harreman onaren ondorioz, Elgetako Gazte Asanbladak, URRIAREN 21ean antolatu du kontzertua herriko frontoian. Denontzat aukera pottoka, Bizkar Hezurra eta Tapia eta Leturia Band ikusteko.



IRAMA

ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIOAK ETA MANTENTZE LANAK

24 ORDUKO ZERBITZUA MENSATEL: 900282828

Abonatua 247262 Tel: 789057- 768025 Salbador 3

ANA LIBURUDENDA

LIBURUAK
JOSTAILUAK
ALDIZKARIAK
ESKOLARAKO TRESNAK

Salbador kalea 1, Tel: 76 80 78 Elgeta

z a p a t u a

Zapatuan , asko eta asko bixamonakin jaikiko ziren, hala eta guztiz , batzuk zezena ebatzeko ahalmena izan zuten argazkian ikus daitekeen moduan. Animalia gaixoak zer esango zuen...Primerako eguraldia, jendea gainezka (hesiaren beste aldean badaezpada ere), bazkaldu eta arratsaldean txirrindulari karrera.

Gauean Joselu anaiakekoak alaitutako erromeriaz gain, "play-back"-a izan genuen; eskubian dituzue irabazle izan zirenetako bi partaide. Nahikoa barre egiteko aukera izan genuen. Seguru hurrengo urtean partehartzaile gehiago ausartuko direla.

Balienteak direla ez dago dudarik. Ekologistak ere ba ote dira?

Gaueko bi izar. Kontrataziorako, deitu Goibekokalera.




d o m e k i a


Jendea erruz hurbildu zen feria komarkala ikustera. Eguraldia lagun, antolatzaileek dena prest zuten goizean goiz. Sari ugari banatu ziren egun horretan; plazanbarazkiak Artekalen makineria eta herrikoen ganadua eta Berrondokuan konkurtsorako ganaduak. Patxi Basaurik, ganadu politenari ematen zaion saria eman zion Jose Aranzabali. Giro ezin hobean ospatu zen feria.

Goibekokalaren taberna aurrean egin zen egundaino izan den sardina lurperatzerik xelebreena. Lurperatu beharrean, kilo pilo bat erre eta jan egin ziren. Oso gozoak portzierto. Hurrengo urtean, gehiago eta hobeto.

ardina freskuak! A ze parea, karakola eta barea. Hurbildu ziren guztiak jan zuten. Hasieran sardinak eta gero txorizoa.



Jose Aranzabal, Etxebarri, saria jasotzen dagoen momentua.



ELGETAKO EAJ/PNV-K, ELGETARRAK BERAIENGAN JARRITAKO KONFIDANTZA ESKERTZEN DU.

Eskerrikasko.

Elorrio: Arriola kultur aretoan, musika gaueko 22:30etan Golden Apple Quarteten eskutik.

Uztailaren 15etik 17ra, Estallido filmea. Zuzendaria Taylor Hackford. Emanaldiak gaueko 22:30etan izango dira.

Uztailaren 22tik 25era, Historias del Kronen filmea eskeiniko da, hau, gaueko 22:30etan larunbata(22) eta arratsaldeko 20etan gainontzeko egunetan.

Ibiltari bidaiak, Cubara bidaiaria antolatu du; Europa kanpinean eta hoteletan ezagutu nahi baduzu, aukera eta prezio oso onak eskeintzen ditu.

Arrasate: AEDk 18 urtetik gorakoei zuzendutako auzolandegiak antolatu ditu. Uztailaren 16tik 30era Behenafarroako Baigorri eta abuztuaren 16tik 30era Arabako Garaion. Goizez lana egiten den bitartean, arratsaldean bertako kultura eta inguruak ezagutzeko aukera aparta duzu. Izen ematea eta argibideak eskatzeko, deitu telefono honetara: 77 12 28.



FERNANDO OJANGUREN TABERNARIA

- Asentsio eguna zer iruditu zitzaizun? Oso ondo dago hori berriz berreskuratzea.

- Goibekokale irakurtzen al duzu? Zer da gehien atsegin duzuna? Bai. Dena.

- Zein da zure hobia? Pelota eta futbitoa.

- Loteria tokatuz gero zer egingo zenuke? Ideiarik ere ez.

- Zenbat pisatzen duzu? 85 kilo.

- Zein da zuretzat janari goxoa? Pastela.

- Kirolak gustokoena? Praktikatzan al duzu? Futbola, gutxi.

- Futbol talderik gogokoena? Athletica

- Umeekin ondo konpontzen al zara? Nahiko ondo.

- Pazientzia asko al duzu? Ba, batzutan...

- Txikitan zer nahi zenuen izatea? Futbolaria.

- Ofizioa aldatuko al zenuke? Ez.

- Zer nahi duzu zure seme alabak izatea? Bakoitzak nahi duena.

- Alkoholak 18 urtetik berakoei eman beharko al litzaieke? Ez dakit, denei ere...

- Mendia ala hondartza? Ez bata eta ez bestea.

- Herria ala hiria? Hiria.

- Ligatzeko gomendio bat? Bakoitza den modukoa izatea.

- Euskal Herriko musika talderik gustokoena? Trabuko.

- Gehien gustatzen zaizun rock taldea? Horrenbeste daude, ez dakit zer jarri.

- Makailua gustatzen al zaizu? Zergaitik jartzen duzu jaietan? Apur bat. Gazteak hori eskatzen dutelako.

- Bizitzan egin duzun gauzarik txarrena? Ez dakit zer erantzun, bat batean ez zait bururatze.

- Telebistako programarik onena? Goenkale.

Horroroskopoa

♈ Aries: Daramazun martxan dozena bat zapatila gaztatuko dituzu.

♉ Taurus: Kim Basingerren antza duzula? Nork dio hori? Zergaitik ote da.

♊ Geminis: Ezkerrak ez zaituela inork bideoan grabatu, bestela... auskalo.

♋ Cancer: Zuek zarete onenak, barrandera pasatu aurretik kalia garbitzen, hori zerbitzua.

♌ Leo: Orain ere noti-zia, Real Madriderik fitxau zaituela? Jokalari moduan edo fansmoduan?

♍ Virgo: Gauza gutxietan ipintzen ba-duzu horrelako enpeinua beste bizimodu bat edukiko zenuke.

♎ Libra: Txakurra zaldiakin ezin bereiztu? Zuek zarie baserri txarrak zuek.

♏ Escorpio: Noizean behin gauzak bere lekuan lagatzeak ez du ondorio txarrik ekartzen.

♐ Sagitarius: Lagunen kontzejuak jarraitu eta askoz hobeto joango zaizkizue gauzak.

♑ Capricornius: Kaskajuen egunian eta jubilatuen antzera, zuek daukazu martxa.

♒ Acuarius: Kalian ez duzuela zuen modukorik aurkitu eta orain fraile edo monja? ez daukazue zereginik.

♓ Piscis: Alkoholak ez duela kalterik egiten... goizaldean ez duzue halakorik esaten. Galdute lanparoni.

**ER
HARATEGIA
ASTI**

San Roke 6
Tel: 768168.

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak

Sukaldeak

Etxaurreak

Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

M^a Karmen Lenzeria

Lenzeria eta
kosmetika gaiak.

Salbador zeharbidea.
Tel: 78 90 40

Zer moduz Elgetako jaietan? Zer falta da?



**Alex Aranzabal
Langilea (32urte)**

Fenomeno, diru aldetik piskat justu baina ondo, zezen gehiago egon beharko lirateke.



**Juana Errasti
Jubilatua (77urte)**

Oso ondo egon dira jaiak, jubilatuen egunean fenomeno, dena oso ondo dago.




**Aintzane Zabala
Etxekoandrea (35urte)**

Ondo, euriak piskat estropeatu egin ditu. Plazan, dantza egiteko talde gehiagoipiniko nituzke.



**Imanol Olabe
Jubilatua (77urte)**

Oso ondo, jaietan goibekokaleko txosna ipintzea ondo iruditzen zait, gainera, bertan, martxa ona egon da. gauza guztiak oso ondo.



**Migel Elorriaga
Langilea (50urte)**

Oso ondo, baina eiriak piskat fastidixau ditu, tablau on bat egon bazen hobeto.



**M^a Angeles Gerediaga
Etxekoandrea (49urte)**

Ondo, mutil eta neska gehiago etorriko ziren ez balu euririk egin. Ondo.



URONDO
elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola, 26. Kataide industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa.
Tel: 797815/771042 Faxa: 771476 ARRASATE.

VIVO
JANARI DENDA

**M^a JESUS
ARRAZOLA**

Tel: 76 81 31

BAGOAAAAAAAAAZ.



Olatz Txintxurreta, Itxaso Egizabal, Saioa Alberdi, Koldo Erostarbe, Josu Azkarate, Iker Valle, Aitzol Jimenez, Iraitz Bolinaga eta Iban Barrigon.

Hementxe dituzue goiko argazki honetan, aurtengo 8. maila bukatu duten ikasleak. Hamaika urtez Elgetan ikasten egon ondoren, irailan, denek kanpora jo beharko dute beraien heziketarekin aurrera jarraitzeko. Batzuk institutura, besteak lanbide profesionalera, ingenieritzako karreran pentsatzen dagonik ere badago...

Aurtengo ikasgai-rik zailena eta aho batez gainera, gizarte izan omen da; erresenen artean ingelesa eta eskulanak daude.

Gogo bizia dute antza Elgetatik irtetzeko; aldatzeko gogoa, klase haundiagoetan eta ikasle gehiagoren artean egotea zer den jakin nahi dute. Gainera beraiei txarrena tokatu omen zaie, hau da, aspaldian eskola zahar-eran ez omen diete ezta lurreko ohol hautsiak konpondu ere. Horretaz gain, saskibaloian jokatzeko ezinezkoa dela ere gehitu dute (zolua ez baita egokia) eta futboleko jokatzeko baloiak lortzea mirari bat dela. Jolastorduak nahi bezala betetzeko nahiko arazo beraz.

Beraien ikasbidaia ere zintzilik gelditu da; laupabost egunetarako irtetzeko asmoa zuen talde osoak eta hiru egunetako bidaiakin konformatu behar izan dute. Hurrengoan gehiago eta hobeto.

Laister izango dute bizipen berriak eza-gutzeko aukera, baina ez dira beldur. Gure aldetik hoberena opa nahi diegu eta tentuz ibili.

P
A
T
X
I

T
A
B
E
R
N
A

Salvador 3
Tel: 768093

Fernando Ojanguren

M^a Jesus Mujika

I
L
E
A
P
A
I
N
D
E
G
I
A

M^a ESTHER
Tel: 76 81 67



Ingelesa Elgetan

Maila guztiak.

Informazioa Biltegi Dendan emango da

BILTEGI DENDA

Kirol, Burdin, Menajea.
Zugandik gertu, behar duzun beste.

SALVADOR 24
Tel: 76 82 06



Jauna hartu ondoren zortzi neska-mutikoei ateratako argazkia.

LEHEN JAUNARTZEA

Alboko argazkian dituzue aurten lehenengo aldiz Jauna hartu duten neska-mutikoak. Zortzi izan dira eliza katolikoak eskeintzen duen sakramentu hau egin dutenak: Asier, Aitor, Alaineta Julendira goian agertzen diren mutiak; beheko neskak: Desire, Iratxe, Estibaliz eta Araitz dira. Lau neskak, zuriz jantzita egin zuten komunioa, eskuartean lore sorta bat zutela. Mutilek aldiz, goitik behera trajeatuta joan ziren, korbata eta guzti. Dena den, beraietako batek aipatu digun moduan, eguneko momenturik zorionsuena, opariak hartzen dituztena omen da. Ziur egun hau ez dutela ahaztuko denboraldi luze bateanez beraiek ezta gurasoak ere.

LEHIAKETA



Oraingo honetan, pertsonaia berezi xamarra jarri dugu asmatzeko. Dena den, pertsonaia hau oso xeble eta ezaguna da.

Guk, aurtengo jaietan askotan ikusi dugu kalean. Zuek ere ikusi al duzue?

Bestetik aurreko hilabeteko pertsonaia asmatu dutenen artean, **Nerea Sarasua** izan da irabazlea. Berak jasoko du kamiseta. Pertsonaia ez bazen oso argi ikusten ere Esteban apaiza zen. Oraingokoa ez da horren nahasia **animatu eta bidali zure erantzuna.**

Honezkero jakingo duzue zein den, baina, beste pista bat emango dizuegu. **Hitz honek 8 hizki ditu.**

Erantzuna badakizue bota zuen karta buzoira. **Sorte on!**

Izena eta abizena: _____
 Erantzuna: _____
 Bizilekua eta telefonoa: _____

HAIZEA

TABERNA

Salbador 5 Tel: 768256 ELGETA



METALEN SALEROSKETA

ANDONI BOLINAGA

Salbador 7
Telf-Faxa: 768064 Elgeta

TXAPELAK BERE LEHEN "TXAPELA" LORTU DU



Txapelak azkenean futbito txapelketa irabaztea lortu du.

Hirugarrenean bai. Azken bost urteetan garaipenaren bila ibili ondoren eta bi final galdu ondoren, Txapelakoek beren lehen txapelketa lortu zuten.

Partidua ona izan ez arren gogorra eta parekatua izan zen. Lehen minututik argi geratu zen zein bide hartu behar zuen finalak; Txapelakoak zelai erdian itxaron eta Heskeitik "B"koak berriz, bere joku teknikoan baliafuz erasora jokatzen. Partidua hasi bezain laster Txapelakoak egindako huts bategaitik Heskeitik "B"koak abantaila hartu zuen markagailuan. Bi minutu pasa baino lehen Iñakik berdinketa eman zion Txapelari, baina atezainak egindako beste huts bati ezker, Hes-

keitik "B"koak aurrea hartu zuten markagailuan bigarren aldiz. Partiduko hurrengo minutuak nahiko monotonoak izan ziren, ez talde batek ezta besteak ere ez baitzuten gol aukera argirik izan. Lehen zatia

amaitzeaz zegoela, H. Gallastegik bi gol sartu zituen eta txapela gol bateko abantailaz joan zen atsedendaldira (3-2). Bigarren zatia ildo beretik jarraitu zuen, Heskeitik "B"koak jo ta ke golaren bila (hiru baloi bidali zituzten langara) eta Txapelakoak ahal zuten bezala defendatuz. Lehia berdindu behar zela uste zenean, Elgetako mutilek kontraeraso bortitz bat bideratu zuten markagailuan 4 eta 2koa esarritz. Azken minutuetan Durangarrak saiatu ziren arren, ezin izan zuten ezer egin. Azken emaitza 4 eta 3koa izan zen.

Nagusien finala jokatu aurretik, beste bi final ere jokatu ziren. Lehen partidua Elgetako gaztetxoek jokatu zuten. Alde batetik Patxi Tabernako gazteak zeuden Iosu De Vegak entrenatua eta beste alde batetik Borrokak Luis Zabaleta entrenatuak. Partidu hau arratsalde guztiko politena eta interesgarriena izan zen eta polikiroldegira jende gehiena hurbildu zuena ere



Borrokak eta Patxi Tabernak partidu polita eskeini zuten.

BOLATOKI

TABERNA-JATETXEA

Berezitasuna: Buztana.

Pintxo goxoak, otartekoak.

Elorrio bide z/g Elgeta. Tel: 943/768284.

ALDI DENDA

(GRUPO IFA)

IGANDE GOIZETAN ERE ZABALIK: 9-12.

Andra Mari Plaza 2. Tel: 76 80 98.

bai. Partidua binako emaitzaz amaitu zen. Patxi Tabernaren aldetik Txomin eta Eneko izan ziren goleatzaileak eta Borrokakoen aldetik berriz Jon eta Eneko. Berdinketaren ondorioz penalti jaurtiketek erabaki behar izan zuten txapelketa, bertan Borrokakoak atera ziren garaile.

Arratsaldeko hirugarren finala Gaztiak (neskak) eta Ana Liburudendak jokaturakoa izan zen. Espero zen bezala Ana Liburudendak ez zuen inongo arazorik izan, hasiera-hasieratik Aritzen eta Iraitzen golei esker (lau bakoitzak) abantail nahikoa lortu baitzuten (6-0 atsedenaldian). Bigarren zatian Maiten bi goli esker Gaztiak markagailua itxuratu egin behar zutela zirudien baina aukerarik eman gabe Anakoek erreakzionatu eta errez irabazi zuten (9-2).

SAILKAPENAK

NAGUSIAK:

Txapelduna: TXAPELA
Azpitzapelduna: HESKEITAK "B"
Goleatzaile nagusia: H. GALLASTEGI

GAZTEAK ETA NESKAK:

Txapelduna: ANA LIBURUDEN.
Azpitzapelduna: GAZTIAK
Goleatzaile nagusia: A. MAKARRO

GAZTETXOAK:

Txapelduna: BORROKA
Azpitzapelduna: PATXI TABERNA

Intxortara Igoera

Aurten ere, urtero bezala, Intxortara igoera egon da. Igoera hau azken urteotan ohitura bihurtu da Elgetako jaien barne eta gero eta partaide gehiago biltzen ari da. Lehengo urteetako faboritoen partaidetzaren faltan, Oxel Erostarbek ez zuen inongo arazorik izan garaipena lortzeko (21' 46" ko denborarekin). Aipagarria da lasterke-ta honetan gazteek izan duten zer esana.

Sailkapena:

- 1- Oxel Erostarbe
- 2- Alex Cristobal
- 3- Iker Valle
- 4- Koldo Erostarbe

Elkoro Euskadiko azpi txapeldun

Aitor Elkoro, Martin Alustizarekin batera, Euskadiko eskuz binakako azpi txapeldun suertatu zen Atano III.ean (Anoeta ohia) jokaturako finalean 22-18 galdu ondoren. Sailkatze partiduetan maila bikaina eman ondoren finalean ez zuen duen maila guztia eman Aitorrek.

Emakumeen bira Elgetatik

Ekainaren 17an Emakumeen Bira igaro zen Elgetatik. Bira honetara txirrindulari euskaldunenez gain Suitzatik, Frantziatik eta beste zenbait tokitatik etorri ziren besteak beste Longo frantziarrak korritu zuen. Azken urteetan munduko txirrindulari onena izan den honek (hiru Tour eta lau munduko txapelketa) 37 urterekin irabaztea zer den ahaztu ez zaiola erakutsi zuen.




Ana Liburudendakoak txapelketa guztian zehar nagusi izan dira.

ZELETA JATETXEA

IÑAKI GOROSTIZA

Eguneroko eta kartako menua
San Roke 2 .Tel: 768151



Jesús Marí Montiel
ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK
Salbador 12 Behea
Mo: 908773950 Eibar Tel: 700719

KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELATAN

ELGETAKO XI. MENDI KRITERIUMEAN OSA NAGUSI

Etengabeko euri zaparrada zela ospatu zen Elgetako XI. Mendi Kriteriuma, Unai Osa Itziartarrak irabazi zuen.

Lasterketa hasi bezain pronto, txirrindulariek lehiarako zuten gogoia argi eta garbi utzi zuten, Arrasatera iritsi aurretik bost txirrindularik ihes egina baitzuten. Bost txirrindulari hauei beste bost elkartu zitzaizkien Eskoriatzarako bidean. Hamar txirrindulari hauek izan ziren laisterketa zati haundi batean protagonistak. Horrela bada, Angiozartik Elgetara bidean 45"ko abantaila edukitzera heldu ziren. Elgetatik pasatu ondoren eta Elorriotik bueltan Kanpazarko gaina igarotzen hasi zirenean hasi zen favoritoen arteko lehia. Favorito hauetatik lau txirrindularik ihes egin zuten, beraien artean Pradera eta Idoiaga. Tropelak, ihesaldi hau garrantzitsua izan zitekeela konturatu zenean jo ta ke ekin zion eta Karabietako gaina igotzen hasi bezain laister denak elkartu ziren berriro. Karabietara igoeratik amaierara arte erasoal-

diak etengabeak izan ziren.

Erasotu zuten lehenak Banesto taldeko Jimenez eta Sastre izan ziren. Hauek oso arriskutsuak zirela ikusirik, Kafes Baque taldeak ihesaldia bertan behera uste-ko erantzunkizuna artu zuen, Orbea taldea bigarren mailan geldituz.

Banestoko bi txirrindulariak harrapatu zituztenean Baquek aurrera joatea erabaki zuen Unai Etxeberriaren eskutik baina Sexto pare-ra heldu orduko Unai Osak (Orbea-Pan Ocio) harrapatu eta erraz hutsi zuen atzean garaipena lortuz.

Oskar Askasibar, Elgetako txirrindulari afizionatu bakarrari dago-kionez, aipatu, ezin izan zuela laisterketa bukatu Eskoriatzara bidean pintxatu egin baitzuen eta ezin izan zuen aurrekoak harrapatu.

OLAIZOLA ANAIAK 4 T'ERDIKO TXAPEL- KETAN GARAILE

Gaur egungo afizionatu mailako pilotaririk onenak.Frontoia betebeteta... ez dago gehiago eskatzerik.Pelotazale amorratuek beste arratsalde bikain bat igarotzeko parada izan zuten.

Lehenengo partidua kadeteek jokatu zuten.Aurrez-aurre Olaizola(Goizueta) eta Saralegi(Amezketeta).Lehenak semifinaletan erraz gainditu zuen Etxaniz(Azkoi-tia) eta bigarrenak Ubera II.a elgetarra gainditu zuen 18 eta 10eko emaitzaz.Xabierrek txapelketa bikaina egin ondoren ezin izan zuen finalerako txartela lortu.

Finalak ez zuen inongo kolorerik izan. Biek oso urduri hasi zuten partidua eta ez zen partidu on bat ikustea lortu. Olaizolak bereala hartu zuen abantaila baina Saralegik erreakzionatu (8-6) eta partidua pilpilean zegoenean huts inozo batzuek egin zituen ondorioz partidua galdutzat eman zuelarik. Azken emaitza 18 eta 7koa izan zen.

Partidu nagusia

edo "estelarra" Urretabizkaiak (Zumarraga) eta Olaizolak (Goizueta) jokatu zuten. Lehen satea Urretabizkaiak egin zuen eta baita tantoa lortu ere. Bazirudien favorito nagusiak erraz irabaziko zuela baina urduritasunaren poderioz edo beherakada nabarmena egin zuen eta Olaizolak oso ondo aprobetxatu zuen (4-11). Aurreko partidua antz handia hartzen zegoen partidua baina pixkanaka-pixkanaka Urretabizkaia lasaitzen joan zen eta partidua beste ikuspegi bat hartu zuen. Momentu honetatik aurrera tantu politak ikusi ziren (batzuk txapela kentzekoak). Markagailuak 18-19 (Olaizolaren alde) adierazten zuenean Urretak bi paret inozo bat egin zuen, bertara Olaizola erraz heldu zen eta tantoa egin ere. Tantu honetan gelditu zen partidua erabakita.

Markagailuaren gora beherak (Urretabizkaiarena lehen zenbakia): 2-0; 2-4; 4-4; 4-13; 12-13; 12-16; 13-16; 13-19; 18-19; 18-22.



PANADEROKUA TABERNA

CONCHI IDIGORAS
LARUNBATA ETA IGANDETAN
BERTAKO BABARRUNAK
SAIHESKIA ERRETA

ELGETA

TEL. 76 82 73



Argazkia: Enrike Ormaetxea

Eskolan...

Argazki hau atera zela 27 edo 28 urte inguru izango dira. Ezagutu ahal izan ditugun izenak jarri ditugu, beharbada bateronbatena ez da ondo egongo. Hala bada barka itzazue eragozpenak

Goian: J.M. Unzetabarrenetxea, J.I. Osoro, J. M. Arrazola, S. Gonzalez, F. Ojanguren, J. Egizabal, G. Sarasua, J. L. Ormaetxea, J. M. Sarasua, Chimeno, I. Izagirre, P. Irazabal, Diez.

2. lerroan: E. Ormaetxea, A. Alzuaran, S. Aranzeta, A. Bolinaga, F. Cenitagoia, I. Agirreazaldegia, A. Idigoras, J. I. Juaristi, J. L. Asenjo, A. Aranzeta, I. Berraondo.

3. lerroan: J. Markiegi, J. I. Ibarluzea, M. Arrazola, J. F. Larrañaga, I. Alberdi, F. Ruiz, F. Larrañaga, J. Cerezal, J. M. Aranzeta, J. A. Montiel.

Orainarte bidali dizkiguzuen argazki gehienak eskolan elkarrekin ikasitako ikasleena izan dira. Etxean argazki bitxirik baldin baduzu, bidali *Goibekokalera*, eskertuko dizugu.

Estampaciones

Elgeta

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatu.

Zure iragarkiendako lekua

Goibekokale hilebetekaria Elgetako etxe eta lantegi guztietan banatzen da
dohainik. Kanpora ere zenbait ale bidaltzen dira.
Zure denda, lantegi edo dena delakoa iragarri nahi baduzu jar zaitez
lehenbailehen gurekin harremanetan.

Deitu goizez 76 81 93 telefonora.

Pintore, elektrizista, garbitzaile eta txosnan egon diren zerbitzari
guztiei gure eskerrak; baita lokala utzi digunari ere.

Goibekokaleko erredakzio kontseia

Aldizkari honen argitaratzailea



AMH

Elgetako Gazte Asanblada